

Hitzetatik Ekintzetara

Eragile desberdinekin
elkarlanean garatutako
proposamenak.

KUTXA
FUNDA
ZIOA

Klik agenda '25

Parte hartu!

MAIATZAK 19 | 11:30 - 17:30 · ELGOIBAR · MAALA ETA
UDALETXKO PLAZA ARTEKO KALEETAN ZEHA
ELKARTRUKAKETA

Hizkuntzen zubia

Elgoibarko Ikastola (Kilometroak antolatzailea)

Hizkuntzak pertsonen, herrien eta kulturen arteko zubiak dira. KLIK hau ikasgelatik abiatzen bada ere, urrunera iristea du helburu. Elgoibartik Britainira arteko bidaia linguistikoa egingo dute ikasleek, eta hizkuntza gutxituen inguruan hausnartuko dute. Elkartrukean eta ikasgelako lanean oinarritutako proposamen pedagogiko honen bidez, hizkuntzek identitateak eta loturak eraikitzen dituztela deskubrituko dute.



MAIATZAK 19, 26 - EKAINAK 2 | ESKOLA ORDUTEGIETAN
DONOSTIA (KATALIN ERAUSO IKASTETXEA ETA ZUHAIZTI
IKASTETXEA)
PROIEKTU PEDAGOGIKOA

Gorputz tantak

Artaziak

KLIK honek etorri berri diren ikasleekin proiektu bat lantzeko aukera ematen du, gorputza eta mugimendua adierazpen-hizkuntza bihurtzen diren espazio batean. Ikasleekin egindako lansaioen bidez, hezkuntza-komunitatearekin partekatuzko material pedagogiko bat sortuko da, eskolan komunikatzeko, egoteko eta elkarbizitza lantzeko modu berriak esploratzeko.



MAIATZAK 20 DONOSTIA | TOLOSA MAIATZAK 23 | URRETXU
MAIATZAK 25 · 10:00-14:00
INFORMAZIO PUNTUAK

Bizilagunak

SOS Arrazakeria

Zer gertatuko litzateke ezagutzen ez duzun norbaitekin mahai baten inguruan eseriko bazina eta gauza asko partekatzen dituzuela deskubrituko bazenu? Bizilagunak egitasmoaren bidez, etorkin familia batek eta bertako familia batek elkarrekin bazkalduko dute, esperientziak partekatu eta elkar ezagutzeko. Dinamizatzaile batek lagunduta, aurreiritziak desagiten eta bizikidetzaren egunerokotasunetik eraikitzen hasiko dira. Izan ere, elkarri gertutik begiratzean, estereotipoek indarra galtzen dute. KLIK honetan, informazio-guneak jarriko ditugu kalean ekimena ezagutzera emateko eta jendea parte hartzea gonbidatzeko. Hurbildu, informatu... eta eman aukera bat elkarriketa batek has dezakeen guztiari.




MAIATZAK 20
9:30 - 12:00 · DONOSTIA EHU AULARIOA - IRUNGO TREN GELTOKIA
12:30 - 14:30 · DONOSTIKO TREN GELTOKIA - DONOSTIAKO
UDALETXE PAREAN
16:00-18:00 · LAZKAOKO PLAZA - DONOSTIAKO ALDE ZAHARRA
ESPERIMENTSU SOZIALA

Euskal ahotsak

— Euskal kultura zure hitzekin

Debegesa - Somos Tinc - GAKO

Proiektu honen helburua esperimendu sozial bat egitea da. Zein iritzi du jendeak egungo euskal kulturaren inguruan? Artearen eta hiri-esperientzien bidez patroikulturalak identifikatzeko ditugu. Gure burua gizarte gisa behatzeko, aurreiritziak apurtzeko, gure ahotsak entzuteko eta iruditeria berriak elkarrekin sortzeko proposamena da.



Hitzetatik Ekintzetara

Eragile desberdinekin elkarlanean garatutako proposamenak.

KUTXA
FUNDA
ZIOA

Klik agenda '25

Parte hartu!

MAIATZAK 21 | 11:00 - 12:30
ARETXABALETA. MONDRAGON UNIBERTSITATEA
PERFORMANCE

Hitzak opari

DAB bitartekaritza - Eragin - CodeSyntax -
Mondragon Unibertsitatea

Hizkuntzak elkarbanatuz eraikitzen dira... Ekintza kolektibo honetan, Mondragon Unibertsitateko ikasleek hitzak jasoko dituzte bat-bateko performance baten bidez, eta jarraian, hitzak irudikatu, sortu eta banatuko dituzte. Hitzek pasilloetan barrena bidaiatuko dute, eta Aretxabaletako kaleetara iritsiko dira, kartulina erraldoietan. Amaitzeko, Wikipedian argitaratuko dira, Hizperritegia izeneko hiztegi partekatu eta biziaren parte izateko.



MAIATZAK 21 | 17:30-20:00 · DONOSTIA. AQUARIUM
PROIEKZIOA ETA SORMEN ARIKETA

“Etorkizuneko naturaren izendegia”

Badalab

KLIK honetan Scavengers Reign-en (HBOren zientzia-fikziozko animaziozko telesaila) lehen atala estreinatuko dugu European, euskaraz. Saioan izango dira sortzaileetako bat, Jon Juarez, eta Katixa Agirre idazlea, eta etorkizuna bera zein hizkuntzen etorkizuna irudikatzeko zientzia-fikzioak duen gaitasunaz arituko dira. Ondoren, telesailak aurkeztutako ekosistema naturalaren inguruko irudiak eta definizioak baliatuko dira etorkizuneko izendegia osatu eta hitz berriak asmatuz hizkuntzari ekarpena egiteko.



MAIATZAK 23 | 11:00 - 13:00
DONOSTIA. INTXAURRONGO. LAMOUROUS ZENTROA
KANTUJIRA

KantuKLIK

Matia Fundazioa

Zaindu ditzagun gure ohiturak! Kantujira honek auzoko kaleak zeharkatuko ditu bizilagunak, gazteak eta helduak elkartzeko, eta ekimena sagardotegi batean amaituko da, bazkalosteko kantuan. KLIK honek bazkalosteko kantugiro herrikoia berreskuratzea du helburu, eta adineko pertsonen kultura eta hizkuntzaren transmisioan duten zeregin garrantzitsua balioan jartzea. Animatu eta etorri kantatzera!



MAIATZAREN 24 | 9:30 - 13:30
SAN TELMO MUSEOA. DONOSTIA
TOPAKETA

DET. Donostiako Euskaltzaleen Topaketa: Euskara eta Harrera

Bagera

Nola eraiki dezakegu komunitate euskaldun irekiago eta anitzago bat? Topaketa honek euskara eta harrera lantzea izango ditu helburu. Gaur gaurkoz euskaratik egiten den harrera aztertu, asetzen ez diren beharrak identifikatu eta jarrera batzuen inguruan hausnartzeko gonbita izango da. Hiria osatzen duten eragile sozialekin, iritsi berriak diren pertsonen eta euskaltzaleekin batera hausnartzeko gune eraikitzailea izango da; euskararen jardura linguistiko eta kulturalak, zein harrera-prozesuak, bete behar dituzten baldintzak aztertuko dira, harrerak euskararekin batera egin dezan bidea. Egin bat kultura eta hizkuntza aniztasunetik zubiak eraikitzeke helburu duen topaketa honekin!

HARRERA
ETA
EUSKARA

Hitzetatik Ekintzetara

Eragile desberdinekin
elkarlanean garatutako
proposamenak.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Klik agenda '25

Parte hartu!

MAIATZAK 30 | 11:00 - 12:30 · DONOSTIA, EGIAKO KULTUR ETXEA
TOPAKETA

Istorioak zeruan zehar

Aranzadi - Jatorkin - Unetxea

Kultura askok zerura begiratu dute erantzunen, seinaleen eta kontakizunen bila. KLIK honetan, begirada horiek partekatze gune bat zabalduko dugu: zientziaz, ezagutza kulturalaz eta aniztasunaz hitz egingo dugu, zerura begiratzean komunitate desberdinek zer ulertzen duten aztertuz. Kulturen arteko elkarriketa bat, zeru beraren azpian.



EKAINAK 1 | 12:00-13:00 · ERRETERIA
EMANALDIA

Bizi oholza. Kulturak mugimenduan

Gertu Kultura - GAKO - DAB bitartekaritza

Zatoz gurekin kulturak mugimenduan jartzera! Gorputzen eta dantzaren bitartez kalera aterako gara kultura-aniztasuna balioan jartzeko, eta horren parte izatera gonbidatzen zaitugu. Herriko Plazan horma-irudi bat aurkituko duzu, ekitaldia itxiko duen ikuskizunean atrezzo gisa erabiliko dena. Lagunduko diguzu oholza hau sortzen?



EKAINAK 1 ORDIZIA: D'ELIKATUZ ZENTRO
EKAINAK 7 VILLABONA: UDALETXEA
EKAINAK 14 SORALUZE: GAZTELEKUA
11:30-13:30
TAILERRA

Kulturaniztasun zopa

Jakinmin elkartea

Zertan dira antzekoak elkarriketa bat eta zopa bat? Belaunaldi arteko tailer honetan, elkarriketa eta sukaldaritza uztartuko ditugu hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan hausnartzeko. "Aniztasunaren zopa" kolektiboa prestatzen dugun bitartean, ideiak, jakintzak eta esperientziak partekatuko ditugu, pentsamendu kritikoa elikatzeke. Esperientzia goxo-goxoa izango da, gozatu!




EKAINAK 5 | 17.30 - 19.00 · DONOSTIA - LOIOLAKO KULTUR ETXEA

EKAINAK 9 | 17:00 - 18:30 · AZPEITIA - BASOZABAL JAUREGIA
FAMILIENTZAT TAILERRA

Zerupe berean

Aranzadi

Familiei zuzendutako jarduera honetan, izarrak behatuko ditugu, kosmobisioak zer diren ikasiko dugu eta unibertsoa ulertzeko dugun modu anitzak ezagutuko ditugu. Saioa sormen-esperientzia batekin amaituko da eta haur bakoitzak izarrak eta konstelazio gogokoenak marraztuko ditu aterki batean.



Hitzetatik Ekintzetara

Eragile desberdinekin elkarlanean garatutako proposamenak.

KUTXA
FUNDA
ZIOA

Klik agenda '25

Parte hartu!

EKAINAK 9 · DONOSTIA - GRUTA (SALA SAN JERÓNIMO)
EKAINAK 10 · AZPEITIA - SAN MARTIN FUNDAZIOA
11:00 - 13:30
ESPERIENTZI SENTSORIALA

Konektatzen gaituzten esperientzia eraldatzaileak

The Languages of Energy

KLIK hau gelditzeko, sentitzeko eta birkonektatzeko gonbidapena da. Soinua, elikadura kontzientea, meditazioa, artea eta zientzia uztartzen dituzten esperientzien bitartez, leku osasuntsuago eta sortzaileago batetik konektatzeko espazioak irekiko dira. Proposamen sentSORIALA eta inklusiboa, herritarrak ongizateetik aktibatuzko, dinamika irisgarri, kolektibo eta eraldatzaileekin. Zatoz zentzumenekin esperientziatzera... eta egoteko eta partekatze modu berriak deskubritzera.




EKAINAK 10 | 11:00-14:00 · ELGOIBAR
GYMKANA

Gymkana interkulturala "Uau eta Krak"

SOS Arrazakeria - Taupa mugimendua - Nerea Kortabitarte - Sara Alonso - Zaragueta Zulaica Fundazioa

Estereotipoak jolasen bidez haustera ausartzen zara? Ginkana honi esker, jolasak eta erronkak baliatuko dira Elgoibarren kultura-aniztasunaren inguruan hausnartzeko. Parte-hartzaileek euskal kultura eta beste hainbat kultura aztertuko dituzte. Ekitaldiaren helburua da gazteen kultura estereotipoak haustea eta kultura aniztasunari buruz sentsibilizatzea, kulturak etengabe aldatzen direla eta elkarrekin harremanetan daudela erakutsiz. KLIKari amaiera emateko, otordu kulturantzun bat egingo da, ikasitakoa partekatze eta hausnarketzeko. Aniztasunarekiko dugun ikuspegia aldatzeko.



EKAINAK 12 | 19:00-20:30 · DONOSTIA. OKENDO KULTUR ETXEA
JAMM SESSION

Diversity Jamm session guneak

Lleno de naranjas

Kultura anitzeko kontzertuen eta dinamika parte-hartzaileen bidez, kultura eta hizkuntza aniztasunaz sentsibilizatzeko arratsaldeak. Saio bakoitza zuzeneko musikarekin girotutako topaketa bizia izango da, kulturen arteko elkarbizitzarako espazio bat. Musikak konektatzeko ahalmen handia du, bazatuz?



EKAINAK 13 | 9:00 - 15:00 · ELGOIBAR
BIDEO-LABUR LEHIAKETA

KRAK bideo-labur txapelketa

SOS Arrazakeria - Taupa mugimendua - Nerea Kortabitarte - Sara Alonso - Zaragueta Zulaica Fundazioa

Abian da hizkuntza- eta kultura-aniztasunari buruzko ikus-entzunezko piezen lehiaketa! Elgoibarko DBH 4. mailako ikasleak sortzaile lanetan murgilduko dira gaiarekiko euren ikuspegi propioa islatzeko. Ekitaldi nagusia ekainaren 13an izango da: bideoen emanaldia eta sari banaketa egingo dira, musikaz eta mokaduez lagunduta. Eman REC botoiari eta batu esperientziara!



Hitzetatik Ekintzetara

Eragile desberdinekin
elkarlanean garatutako
proposamenak.

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Klik agenda '25

Parte hartu!

EKAINAK 14 | 10:00 - 16:00 · DONOSTIA (TXALUPAGILLENE PLAZA - ANTIGUO)
JAIALDIA

Etiobask Jaialdia – Etiopiako eta Euskal Herriko kulturaren jaia

Etiopia Utopia

Ba al zenekien Etiopian 80 hizkuntza desberdin hitz egiten direla? Eta 13 hilabeteko urteak dituen egutegi koptoa darabiltela? Eta egutegi hori gure egutegi gregorianoa baino 7 urte beranduago hasten dela? Kultura arteko jaialdi honek kultura aberats, anitz eta liluragarri honetara hurbilduko gaitu. Tailer, erakusketa, musika, gastronomia eta artisautzaren bitartez, Etiobaskek estereotipoak apurtzera eta aniztasunetik konektatzera gonbidatuko zaitu.




EKAINAK 14 | 10:00 - 13:00 · DONOSTIA. EGIAKO PLAZAUNDI (LUIS MARTIN SANTOS PLAZA)
AUZO ELKARRIZKETAK

Auzoko elkarrizketak Egia

Taupa mugimendua

Zer ahots entzuten ditugu hizkuntzei buruz hitz egiten dugunean? Eta zeintzuk geratzen dira kanpoan? KLIK honek auzokoen arteko elkarrizketa sustatzeko espazio bat sortu nahi du, Egiako hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan kolektiboki hausnartzeko. Euskara erdigunean jarritz, baina urrun bizi diren herritarrei ahotsa emanez. Parte-hartze dinamiken bidez, bizipen pertsonaletatik abiatuta, elkarbizitza eta parte-hartze errealagoa sustatuko duten proposamenak sortuko ditugu. Hurbildu, zure begirada partekatu... eta izan zaitez elkarrizketa eraldatzailearen parte.



ERAKUSKETA

MAIATZAREN 26tik EKAINAREN 7ra | 10:00-13:00 · ARRASATE
ETA DONOSTIAKO EMAUS DENDAK

TOPAKETAK

MAIATZAREN 26tik 31ra | ASTELEHENETIK OSTIRALERA 10:00-20:00 - LARUNBATETAN 10:00-13:00 · ERRETERIA

Maniklik

Emaus

Espazio publikoa arte-galeria bilakatuko duen esku-hartze artistiko honek aniztasuna ospatzen du eta begirada aldaketa bat proposatu. Hondakinekin sortutako manikien erakusketaren bidez, egoera zaurgarrian dauden kolektiboek hiriko bizitza kulturalean parte har dezaten aldarrikatzea du helburu. Emauseko eguneko zentroko ikasleen eta parte-hartzaileen arteko topaketak ere egingo dira, sormena eta sen kritikoa sustatuz. Gelditu, begiratu... eta beste ikuspegi batzuk ezagutu.

